



Zer dugu eta  
zer beharko  
genuke

Ane Ortega Etcheverry

**BAM**

Begoñako Andra Mari

IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO

## Hitzaldi honetan:

- Materialen berrikusketaren beharra
- Nolako ereduak behar ditugu?
- Irakaskuntzarako ahozko ereduak, nondik atera eta nola sortu?
  - a) "Benetako" testuak
  - b) Ad hoc grabatutako testuak
- Ditugun datu-baseak (adib. Ikasbil)
- *Ad hoc* grabatutako testuak sortzeko irizpideak

# EGOERA

- **HEOC berria**
  - ← **Europako Markoa**
  - ← **H2 didaktikaren ikerketak**
- **Etxeko ikerketak/neurketak: lortu duguna (eta ez)**
- **Identifikatutako behar berriak (adib. Lan mundua)**



- Benetako egoera komunikatiboak
- Ikasleentzat esanguratsuak eta erabilgarriak direnak
- Ahozko hizkuntzaren garrantzia
  - => Ahozko generoak /egoera komunikatiboak lantzeko beharra
  - => Ulermenerako, benetako testuak, euskalkiaz ere

# Planteamendu koherente bat nahi badugu...

➔ Materialen berrikusketaren beharra:

- Material didaktikoak
- (Egoera komunikatiboen) ereduak diren testuak:
  - Idatzizko testuak
  - Ahozko testuak: audio/bideo materialak

Hitzaldi  
honetan  
hauetan  
zentratuko  
gara

# Audio/bideo materialak, ZERTARAKO?

- Ulermena lantzeko
- Ereduak bezala funtzionatzeko:
  - Ikasleek egoera komunikatiboa eta testua irudikatzeko
  - “Estimuluak” izateko
  - Hizkuntza-edukiak identifikatzeko (ahozkoak direnak)
  - Jarduera didaktikoetan erabiltzeko / ikasleek manipulatzeko

# Zein testu, nolakoak?

- Ugariak eta anitzak:
  - genero ezberdinetakoak,
  - egoera komunikatibo ezberdinetan.
  - Ahotsak, euskalkia...
- Benetakoak (edo "sinisgarriak")  
(Ahalik eta egoera normaleenetakoak")

Adibide parte bat aztertuko ditugu:

- *Bihar mendira (A1) (irakasleek grabatutakoa)*
- *Altzairugintzako langileen bilera (C1) (Ikasbil)*

*Nolako testuak dira hauek?*

*Ereduak badira?*

*Zein irizpideren arabera sortu dira?*

# Ahozkoa (ondo) landu nahian...

## Zein eduki????

### Ahozko hizkuntza vs. hizkuntza idatzia

"Ahozkoaren *gramatika*", ahozko testua eraikitzeko modua, oso estu daude lotuta ahozko kodearen ezaugarri eta aukerei baita testuinguruan bertan gertatzeari.



## KONPARATU:

### 1. testua

A.– Aizu, non dago telefono bat?

B.– *Hor, taberna horretan, edo bestela plazan.*

A.– Eta plaza non dago?

B.– *Hemendik hurbil. Kale hau zuzen jarraitu, gero, muturrera heltzean, eskuinera jo, eta bertan kabina bat daukazu, hamar bat metrotara.*

A.– Eskerrik asko, agur.

B.– *Agur, bai.*

## 2. testua

A - Aizu, barkatu, bertokoa al zea?

B - Bai, hemengoa naiz, bai, Trintxerpekoa.  
Ze ba?

A - Bai beira, ez, galderatxo bat... eske telefono-dei bat ein behar det etaaa... ez det arkitzen telefono kabinan bat edo...

B - A... Ba, hementxe bertan daukazu, gertu-gertu... beira... hartzazuu... San Pedro badakizu non da(g)on?

A - Eee, bai... San Pedro, bai.

B - Hemendikan San Pedro aldera... hau Avenida... mm... han taberna da(g)o, ta hemendikan San Pedro aldera hartu...

A - Bai...

B - ...xuxen-xuxen...

A - Bai...

B - ...eta hortxe, bidean aurkituko dezu... Gudarien enparantza. Badakizu non da(g)on...?

A - A bai.. han bada(g)o... bai, bai... eza(g)utzen det... halako bat, bai...

B - Bai... ba hor bada(g)o bat...

A - ... oraintxe bertan pasa naiz aurretik ba...!

B - Ba halakooo... monolito bat edo daukan... plaza hortan da...

A - ...bale, bale...

B - ... hortxe bertan dezu kabina...

A - Mmm... Bale, bale... ba mila esker!

B - Benga ba...

# Ondorioz, zer irakatsi?

Ahozko hizkuntzak berezko dituen ezaugarriak irakatsi behar ditugu, elkarreraginarenak ere bai.

(a) Idatzizkoetan ere dauden hizkuntza-formak, baina ahozkoan duten jokabide bereziekin (eta, jakina, ez irakatsi gertatzen ez denik).

(b) Alderdi fonologiko eta prosodikoak, ahozko monologaletan ere badaudenak, baina ez era berean.

(c) Elkarreraginean soilik gertatzen direnak, adibidez, txanda aldaketak, gai aldaketak, elkarreraginezko molde bereziak...

**Ereduak behar ditugu  
ahozko komunikazioa ondo irakasteko,**

**BENETAKO MATERIALAK  
VS.  
*AD HOC* GRABATUTAKOAK?**

# (a) Benetako materialak

- *Benetako materialak zeintzuk dira?*
- *Benetako materialen eztabaida*
  - Arazoak:
    - Behar ditugun egoerak / generoak ez ditugu aurkitzen
    - Zailak gelaratzeko: luzera, konplexuegiak, euskalkia...
  - Abantailak
  - Fokoa non, testuan ala atazan?
- *Zer daukagu?*
  - *Ikasbil*
  - Beste iturri batzuk

# Adibide bat: IKASBIL

(<http://www.ikasbil.eus>)

## a) Datu basearen edukiak:

- Zer dago?
- Hor dauden baliabideak egokiak dira?
- Zer falta da?

## a) Tresnaren erabilgarritasuna:

- Dagoen sailkapena egokia da?
- Etiketak zein irizpideren arabera sortu dira?

# b) Ikasbilen antolamendua

HABE IKASBIL: a1, a2, b1, b2,c1 e x +

No es seguro | www.ikasbil.eus/web/ikasbil/dokuteka?orria=0&gakoa=&zenbakia=&tagsentryid1=100936&... ☆

Aplicaciones Bookmarks Sitios sugeridos Nueva pestaña Recibidos (189) - est Error de privacidad Recibidos (921) - aon >>

Sartu bilaketarako gakoa(k)

Zenbakia:

Maila:  A1  A2  B1  B2  C1  C2

Formatoa:  Bideoak  Audioak  Idatziak

Etiketak:  Sintaxia (110)  Ahozkoaren ulermena (3393)  Irakurriaren ule... (197)  Izen sintagma (93)  Adierazpide ling... (231)

Ordena:  Pub. data  Ikusiena  Baloratuena  Aipatuena

Emaizta kopurua 3568 1. Orrialdea 357 (e)tik

**Dokuteka**  
B1   
2000-urr-01  
9214 Bisita  
2

**Kukua**  
Dokumental honetan, kuku-kumea, bere bizitza aurrera ateratzeko ahaleginean, habian dauden gainontzeko txitak akabatu beharrean dago.

**Dokuteka**  
B1   
2013-urt-24  
3537 Bisita  
1

**Eman euskara elkarri!**  
Korrika 18ren mezua eta omenduak uztartu eta azaltzeko asmoz egin du bideo hau AEK erakundeak.

**Interesatzen zaizu**

**Xabier Lete**   
**San Martin, azken larrosa**  
Kantak - 2006-uzt-17 - 13690 Bisita

**Pixkanaka**  
Euskaraz esaldi errazak ikasteko j...[+]

**Irrati-nobelak**  
Entzuteko istorioak, ikasten duzun ...[+]

**HADE** **Azterketa ereduak**  
Estekak - 2012-abe-11

**Dokuteka**

Vinculos

ESP 22:05  
ES 09/11/2018

# ***Ikasbil* antolamendu berri bat proposatu nahian...**

## **Dagoena:**

- Mailaka
  - Formatoak
  - Dauden etiketak: ahozko ulermena...
- 
- Bilatzailearen bidez bilatzeko aukerak: etiketa, izenburua...



# ***Ikasbil* nola hobetu?**

## **a) Edukiak:**

- Aniztasun gehiago
- Kalitatea eta egokitasuna (benetako ereduak)

## **b) Antolamendua**

- Testuen iturria
- Ahozko testuak/idatzizko testuak
- Diskurtso mota eta generoa
- Gaia
- Erabilera eremua (adib. Hedabideak, Politika, Hezkuntza, Literatura...)
- Jarduera mota?

# Beste iturri batzuk ere badaude...

- [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)
- <http://aittu1.wikispaces.com>
- <http://vimeo.com>
- [www.etxegiroan.com](http://www.etxegiroan.com)
- [www.youtube.com/](http://www.youtube.com/)
- ....

## b) *Ad hoc* grabatutako materiala

**Nola sortu audio/bideo materialak?**

Adibide bat ikusiko dugu (Medikuaren kontsultan)

**Nola egin da?**

**Prozedura:**

- Egoera komunikatiboa zehaztu
- Errolak eta betebeharrak banatu
- Grabatu
  
- Materiala egokitzeko (denbora, konplexitasuna, etab.) errepikatu grabaketa, baldintza zehatzago edo ezberdinak erabiliz.

# Beste adibide batzuk

- Lan-bilera (BAMeko ikasleak)
  - > Ikasleen lanak agian gure datu basean gordetzeko egokiak?
- Caucako nasen bideo batzuk:
  - Agurrak
  - Merkatuan erosketan egiten

**Lanaren banatzeko beharra:**

**NORK EGIN BEHAR DU  
ZER????**

**ESKERRIK ASKO!**